



**Euskarabidea-Euskararen Nafar In-stitutuaren eta Jaso Fundazioaren arteko hitzarmena, euskarazko musikal bat egiteko eta programatzeko 2023 urtean.**

**Convenio entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Jaso Fundazioa, para la programación y divulgación de un musical en euskera durante el año 2023.**

#### **A) XEDEA**

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea-Euskararen Nafar In-stitutuaren eta Jaso Fundazioaren arteko hitzarmenaren oinarri orokorrak ezartzea, 2023 urtean Jaso Fundazioak "TE-4000 Hegaldian" musikala eta hezkuntza eta arte arloko programazio eta hedapena aurrera ateratzeko.

"TE-4000 Hegaldian" musikala nerabeei eta haurrei zuzendutako euskarazko proiektu pedagogikoa da, bere osotasunean Jaso Ikastolako ikasleek garatua. Proiektu horren bidez, euskararen sustapen orokorra bilatzen da Nafarroan eta euskararen gainerako lurraldeetan. Gainera, hezkuntza eta arte arloko proiektua indartu asmo da arlo horretako nazioarteko beste proiektu batzuekiko harremanen bidez.

Bestalde, autismoak eragindako desgaitasunen bat duten pertsonen egoera ezagutaraztea du helburu. Era berean, ikuslegoari, hots, ikastetxeei, erakutsi nahi zaie, sortu diren unitate didaktikoen bitartez, zein diren pertsonengan autismoak ala beste desgaitasun batzuek eragiten dituzten ondorioak, bai desgaitasunen bat dutenengan, bai eta ingurune-koengan ere.

#### **B) ZIOEN AZALPENA**

Erakunde biek azaltzen dute:

- Euskararen erabilera sustatzea dutela helburu komuna, eta elkarren beharra dutela Jaso Fundazioak antolatu duen

#### **A) OBJETO**

El presente convenio tiene por objeto establecer las bases generales del convenio entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y la Fundación Jaso para la programación y divulgación de un musical en euskera, denominado: Musical "TE-4000 Hegaldian" y otras actividades educativo-artísticas.

El musical "TE-4000 Hegaldian" es un proyecto pedagógico en euskera dirigido a adolescentes, niñas y niños, desarrollado íntegramente por alumnos y alumnas de Jaso Ikastola. Su objetivo principal es la promoción del euskera tanto en Navarra como en los otros territorios de nuestra lengua. Además, se potenciará el proyecto educativo-artístico, mediante la relación con otros proyectos internacionales.

Por otro lado, su objetivo es dar a conocer la situación de las personas que tiene una discapacidad debida al autismo. Asimismo, se pretende mostrar al público, es decir, a los centros educativos, a través de las unidades didácticas que se han creado, cuáles son las consecuencias que crea el autismo y otros tipos de discapacidad, tanto a las personas que las tienen, como a las del entorno.

#### **B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Ambas instituciones acuerdan que:

- Es objetivo común de ambas instituciones el fomento del uso del euskera y para la realización del proyecto Musical "TE-4000



proiektu espezifikiko eta integrala gauzatu ahal izateko; hau da, "TE-4000 Hegaldian" musikala eta hezkuntza eta arte arloko beste jarduera batzuk gauzatu ahal izateko.

- Alde biek, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Jaso Fundazioak ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duen lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmena sinatzeko eta hitzarmenaren zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

### **C) INDARREKO ARAUDIA**

Hitzarmena lege xedapen hauen arabera arautuko da:

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.
2. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea. 1.2 artikuluan ezartzen dira ezinbesteko helburuak: "herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea; euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz, eta euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.
3. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretua. Horren arabera, aipatutako erakundeari dagozkion eginkizunen artean dago

Hegaldian" y otras actividades educativo-artísticas, es necesario el trabajo coordinado para su desarrollo integral.

- Que ambas partes, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Jaso Fundazioa, conocen y respetan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que habilita a ambas partes para suscribir el presente convenio y desarrollar cualquier iniciativa complementaria vinculada al mismo.

### **C) MARCO LEGAL**

El presente Convenio se registrará de acuerdo a las siguientes normas legales:

1. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.
2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera. En su artículo 1.2 establece los objetivos esenciales de esta ley: "Amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el euskera y definir los instrumentos para hacerlo efectivo; proteger la recuperación y el desarrollo del euskera en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso, y garantizar el uso y la enseñanza del euskera con arreglo a principios de voluntariedad, gradualidad y respeto, de acuerdo con la realidad sociolingüística de Navarra.
3. El Decreto Foral 303/2019, de 6 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Se asigna a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, entre otras, la función de realizar programas de información y de sensibilización



euskara bitzta sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio- eta sentsibilizazio-programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.

4. 2019-2023 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioa. Besteak beste, honakoa aurreikusten du: Erakunde publikoekin eginiko lankidetzak-hitzarmenei jarraitutasuna eman, edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan, euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-entitateekin eginikoei.

5. 2023ko Aurrekontu Orokorretan, 15.000 euroko funtsa duen partida izendun hau ezarri da: B30002 B3200 4819 334107 "Jaso Fundazioarekiko hitzarmena, euskarazko musikal bat programatu eta zabaltzeko". Partida hori egokia da "TE-4000 Hegaldian" musikala eta hezkuntza eta arte arloko beste jarduera batzuk sustatzeko; bai eta proiektua indartzeko nazioarteko beste proiektu batzuekiko harremanen bidez.

#### **D) HITZARMENAREN IRAUPENA**

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da, eta indarraldia 2023ko azaroaren 10ean amaituko da. Diruz lagungarriak diren gastuak 2023ko urtarrilaren 1etik urriaren 31 bitarte sortutakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

#### **E) AURREKONTUA**

2023rako aurrekontua 15.000 eurokoa (BEZ barne) izanen da, 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren B30002 B3200 4819 334107 "Jaso Fundazioarekiko hitzarmena,

sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.

4. El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra de la legislatura 2019-2023. Se destaca la necesidad de dar continuidad a los convenios de colaboración con instituciones públicas y/o en su caso, de manera subsidiaria a lo público con aquellas entidades sociales con responsabilidad en el euskera.

5. En los Presupuestos Generales de Navarra de 2023 se contempla la partida nominativa B30002 B3200 4819 334107 denominada "Convenio con Jaso Fundazioa para la programación y divulgación de un musical en euskera", con un saldo de 15.000 euros, al objeto de desarrollar el proyecto Musical "TE-4000 Hegaldian" y otras actividades educativo-artísticas, además de potenciarlo mediante el establecimiento de relaciones con otros proyectos internacionales.

#### **D) DURACIÓN DEL CONVENIO**

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma y finalizará su vigencia el 10 de noviembre de 2023. Los gastos subvencionables serán los generados y abonados entre el 1 de enero y el 31 de octubre de 2023.

#### **E) PRESUPUESTO**

El presupuesto para el año 2023 será de 15.000 euros (IVA incluido), con cargo a la partida B30002 B3200 4819 334107 denominada "Convenio con Jaso Fundazioa para la programación y divulgación de un



euskarazko musikal bat programatu eta zabaltzeko” partidaren kargura.

#### **F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK**

Honako gastuak lagunduko dira:

1. Egitura gastuak: soinu-teknikariak, argi-teknikariak, tramoia eta antzokitako zerbitzuak.
2. Musikalaren koordinazioa: aholkularitza, gidaritza eta dinamizazioa.
3. Antzokietatik kanpo eginen diren gizarteratze emanaldi eta ekintzak, Nafarroan (Iruñean eta Tuteran).
4. Hezkuntza eta arte proiektua sustatzea, nazioarteko beste proiektu batzuekiko harremanen bidez (Hungaria eta Ipar Mazedonia).
5. Ikuskizunaren sustapena egiteko euskarri komunikatiboak diseinatzea.
6. Teknikarien, parte hartzaileen eta hezitzaileen pedagogia eta prestakuntza.
7. Jarduera kulturek eragindako gastuak.

#### **G) DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA**

Dirulaguntza urte amaieran ordainduko da, 2023ko abenduaren 31 baino lehen, betiere, administrazioan araututa dagoen eran, gastuak ziurtagirien bidez justifikatu ondotik.

Edozein kasutan, ordainketaren kopurua justifikatutako zenbatekoaren arabera izanen da.

#### **H) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA**

Laguntza justifikatuko da dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera, betiere, hemen zehazten diren epe eta dokumentuen bidez:

musical en euskera”. de los Presupuestos Generales de Navarra de 2023.

#### **F) ACTIVIDADES A SUBVENCIONAR**

Se subvencionarán los siguientes gastos:

1. Gastos de estructura: técnicos/as de sonido, técnicos/as de iluminación, tramoyistas y servicios de los recintos teatrales.
2. Coordinación del musical: asesoramiento, liderazgo y dinamización.
3. Socialización de las acciones y espectáculos realizados al margen de los espacios escénicos en Navarra (Pamplona y Tudela).
4. Potenciación del proyecto educativo-artístico, con la relación con proyectos internacionales relacionados ( Hungría y Macedonia del Norte).
5. Diseño de soportes comunicativos para el fomento del espectáculo.
6. Pedagogía y Formación de los técnicos, participantes y formadores.
7. Gastos de actos culturales.

#### **G) PAGO DE LA SUBVENCIÓN**

El abono de la subvención se realizará antes del 31 de diciembre de 2023, previa presentación de los justificantes y facturas de los gastos, de acuerdo a la normativa vigente en la administración.

De todas formas, el importe a pagar se calculará de acuerdo a la cantidad de la justificación presentada.

#### **H) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN**

La subvención concedida se justificará, de acuerdo a la Ley Foral de Subvenciones 11/2005, de 9 de noviembre, en los plazos y documentos que se detallan a continuación:



a) Justifikaziorako dokumentazioa 2023ko azaroaren 10a baino lehen aurkeztuko da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan, ohiko diren bide administratiboak erabiliz.

b) Langile gastuak justifikatzeko Jaso Fundazioko kideek egitasmoari emandako orduak zerrendatuko dira eta horrekin batera nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZ atxikipenak aurkeztuko dira.

c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horiekin batera fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak, bai eta ordainketa agiria ere, atxikiko dira.

Faktura eta gainerako agiriak era egokian zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira, BEZa edo bestelako zergak barne hartuta. Jardueraren bat zergen ordainketatik salbuetsirik egonen balitz, hala adieraziko da.

Bestalde, diruz lagundutako proiektua bukatu ondoren, dirua jasotze aldera, Jaso Fundazioak 2023ko azaroaren 10a baino lehen egitasmoaren oroitidazkia aurkeztuko du Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan, ezarritako helburuak bete ote diren aztertzeko.

Horretaz gain, gastuen azkeneko justifikazioa ez bada onartutako aurrekontu guztiaren zenbatekoa adina, baina hala ere, onuradunak frogatzen badu dirulaguntzaren xedea benetan bete duela eta superabitik ez

a) La documentación justificativa de la subvención se presentará en Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, por los medios administrativos oportunos, antes del 10 de noviembre de 2023.

b) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la presentación de una relación de horas reales dedicadas al proyecto por el personal de Jaso Fundazioa, acompañada de las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF.

c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

Las facturas y demás documentación se numerarán correlativamente y se presentarán en el mismo orden en que figuren en la relación de gastos, con inclusión del IVA u otros impuestos. En aquellos casos en que la actividad estuviera exenta de impuestos, así se hará constar.

Asimismo, una vez finalizado el proyecto subvencionado, con el fin de proceder al cobro de la misma, Jaso Fundazioa presentará una memoria del proyecto a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, antes del 10 de noviembre de 2023, para valorar el cumplimiento de los objetivos marcados.

En el caso de que la justificación final del gasto no alcance el importe total del presupuesto aceptado, siempre que se acredite por el beneficiario el cumplimiento efectivo del objeto de la subvención y la no existencia de



dela izan, ulertuko da onuradunak bete duela dirulaguntza justifikatzearen betebeharra. Edozein moduz, Euskarabidea-Euskararen Nafar Insitutuak erabakiko du gastuen justifikazioa bateragarria denentz deialdiaren xedea gauzatzearekin.

Era berean, deialdiaren helburua osorik betetzen ez bada, jasoko den zenbatekoa gutxitu egingen da, gauzatze mailarekiko modu proportzionalan gutxitu ere.

### **I) GARDENTASUNA BETEBEHARRA**

Entitate onuradunak gardentasun-betebeharra izango du, zeina irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuan arautua baitago, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura dirulaguntzak eskuratzen dituenen eta ondoko bi inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

- a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa urteko 20.000 eurotik gorakoa izatea.
- b) Emandako zenbatekoak entitate onuradunaren negozio kopuruaren edo urteko aurrekontuaren ehuneko 20a gainditzea.

Aurreko atalean ezarri diren kopuru mugak gainditzen diren edo ez aintzat hartzerakoan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo bere erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntzen kopuru guztia gehituko da. Dirulaguntza hainbat urtekotan egiten den kasuetan, ondorio hauetarako aurrekontu-ekitaldi bakoitzean emandako kopurua kontatuko da, eta ez batura osotara. Negozio kopurua edo erreferentziatzko urteko aurrekontua, ondoko magnitudeen artean zenbateko txikiena duena izanen da:

- a) Aurreko urteko negozio kopurua edo gauzaturiko aurrekontua.
- b) Hala badagokio, dirulaguntza ematen

superávit, se considerará que el beneficiario cumple con la obligación de justificación de la subvención. No obstante, Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera valorará si dicha justificación es compatible con la ejecución efectiva del objeto.

Por otra parte, si la ejecución del proyecto subvencionado no fuera total, el importe a percibir se minorará proporcionalmente a la parte realizada y justificada.

### **J) OBLIGACIONES DE TRANSPARENCIA**

La entidad beneficiaria estará sujeta a la obligación de transparencia, regulada por el Decreto Foral 59/2013, de 11 de septiembre, cuando perciba subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de Navarra y concurren alguna de estas dos circunstancias:

- a) Que el importe de la subvención concedida supere los 20.000 euros anuales.
- b) Que el importe concedido supere el 20 por ciento de la cifra de negocio o del presupuesto anual de la entidad beneficiaria.

A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio o presupuesto anual de referencia, será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

- a) La cifra de negocio o presupuesto ejecutado del año anterior.
- b) En su caso, la cifra de negocio o





duen entitatearen organo eskumendunak onetsitako negozio kopurua edo aurrekontua.

presupuesto aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

Bi gorabehera hauek batera dituen entitate onuradunak, modu telematikoan aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoan, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari zuzenduta, jakinarazpena jaso edo, kasua bada, dirulaguntza eman izanaren ebazpena argitaratzeko egunetik hasita hilabeteko epean, jarraian zerrendatzen den informazioa (II. eranskina)

Las entidades beneficiarias en las que concurren estas dos circunstancias, deberán presentar de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y dirigida a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, en el plazo de un mes contado desde la notificación o, en su caso, fecha de publicación de la resolución de concesión de la subvención, la información que se relaciona a continuación (anexo II):

- a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.
- b) Organo horiek osatzen dituzten kideen zerrenda.
- c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptutan banatuta. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan bildutakoa izanen da.
- d) Kargudun bakoitzaren dedikazio araubidea gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetarako.
- e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

- a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.
- b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.
- c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas, percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será de las que figuren en sus presupuestos o plan económico-financiero.
- d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección, de cada uno de sus cargos.
- e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

Informazio hori entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bide telematikoak erabiliz, eta dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari bidaliko zaio.

La información señalada se presentará firmada por el o la representante legal de la entidad beneficiaria de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y se dirigirá a la unidad administrativa que gestiona la subvención.

Entitateak gardentasun betebeharra bete behar ez badu aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direlako, horren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du.

En el caso de que la entidad no se encuentre sujeta a la obligación de transparencia al no darse los supuestos previstos deberá presentar una declaración en tal sentido.



Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aurrekoa galarazi gabe, onuradun guztiak behartuak daude unitate kudeatzaileari behar den informazio guztia ematera, aurretiazko errekerimendua eginda eta hamar eguneko epean, frogatzeko betetzen direla maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen II. tituluan jasotako gardentasun betebeharrak (aipatutako foru lege horrek hizpide ditu gardentasuna, informazio publikoa eskuratzea eta gobernu ona).

Errekerimenduan emandako epea bukatzen bada eskatutakoa bete gabe, hertsapen isunak ezartzea erabakitzen ahalko da, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, interesdunari ohartarazpena egin ondoren eta entzunaldia emanda. Isuna hamabost egunetik behin errepikatuko da, errekerimendua bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izan dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan.

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente. Para ello, la entidad deberá identificar el momento y el órgano de la Administración de la Comunidad Foral ante el que la presentó.

El incumplimiento de esta obligación impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

Sin perjuicio de lo anterior, todos los beneficiarios estarán obligados a suministrar a la unidad gestora, previo requerimiento y en un plazo de diez días, toda la información necesaria para el cumplimiento por ésta de las obligaciones de transparencia previstas en el Título II de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Una vez transcurrido el plazo conferido en el requerimiento sin que el mismo hubiera sido atendido se podrá acordar, previo apercibimiento y audiencia al interesado, la imposición de multas coercitivas de 500 a 5.000 euros. La multa será reiterada por períodos de quince días hasta el cumplimiento. El total de la multa no podrá exceder del cinco por ciento del importe de la subvención. Para la determinación del importe, se atenderá a la gravedad del incumplimiento y al principio de proporcionalidad.





## **J) DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN PROZEDURA**

Jarraipenari, itzulketari eta zehapen prozedurari dagokionez, Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera jokatu da, eta zehazki ondokoan ezarritakoaren arabera:

- II. titulua, dirulaguntzak itzultzea, I. kapitulua, itzulketaren gainean, 34., 35., 36. eta 37. artikulua.
- III. titulua, dirulaguntzen jarraipena, I. kapitulua, organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipenaren gainean, 38. eta 39. artikulua. II. kapitulua, finantza-kontrolaren gainean, 40. eta 41. artikulua.
- IV. titulua, arau-haustek eta zehapenak, I. kapitulua, arau-hausteen gainean, 42. artikulua. II. kapitulua, zehapen araubidearen gainean, 43., 44., 45., eta 46. artikulua.

## **K) DIRULAGUNTZA PUBLIZITATZEA**

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari, dirulaguntzaren onespeneren hasieratik eman ere. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez. Aipamen hau Nafarroako Gobernu sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat eginen da eta jarduera zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.

## **L) LAGUNTZAREN BATERAGARRITA-SUNA**

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako edo beste batendako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

## **J) REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR**

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dicho:

- En su Título II, Reintegro de las subvenciones, el Capítulo I, del reintegro en los artículos 34, 35, 36 y 37.
- En el Título III, Seguimiento y control de las subvenciones, el Capítulo I, seguimiento por parte de los órganos gestores en los artículos 38 y 39. Capítulo II, Control financiero en los artículos 40 y 41.
- En el Título IV, Infracciones y sanciones, el Capítulo I, Infracciones en el artículo 42. Capítulo II, Régimen sancionador los artículos 43, 44, 45 y 46.

## **K) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCION**

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

## **L) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN**

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad u otras, cuya obtención se deberá comunicar a



Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Iruñean, 2023ko sinadura digitalaren egunean

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria  
La Consejera de Relaciones Ciudadanas

Ana Ollo Hualde

En Pamplona, a la fecha de la firma digital

Jaso Fundazioaren lehendakaria  
El Presidente de Jaso Fundazioa

Eduardo Martínez Lakabe



**EUSKARABIDEAREN ETA JASO FUNDAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA (2023) /  
 CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA Y JASO FUNDAZIOA (2023)**

<b>Azalpena / Concepto</b>	<b>Zenbatekoa / Cantidad</b>	<b>Prezioa / Precio</b>	<b>Guztira / Total</b>
<b>Argi eta soinu teknikariak eta ekipoak / Técnicos/as de luz y sonido y equipos</b>	2	2.424 €	4.400 €
<b>Garraioa / Transporte</b>	1	1.476 €	1.400 €
<b>Orkestarako alzadoa / Alzado para la orquesta</b>	1	3.200 €	3.200 €
<b>Formazio teknikaria / Técnico/a de Formación</b>	1	1.000 €	1.000 €
<b>Nazioarteko harremanak / Relaciones internacionales</b>	1	5.000 €	5.000 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>			<b>15.000 €</b>



## II. eranskina / Anexo II

[Gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Organoen osaketari eta dedikazioari buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Karguen ordainsariei buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Declaración sobre la obligación de transparencia \(PDF\).](#)

[Declaración sobre la composición órganos de gobierno y dedicación \(PDF\).](#)

[Declaración sobre las retribuciones de los cargos \(PDF\).](#)